



itsaso alderako bidea

6,5 Km - 2 ordu

### Fitxa teknikoa

- Ibilbidearen hasiera/amaiera: Elexalde-Ibarrangelu
- Ibilbidearen luzera: 6,5 km
- Gehieneko maldak: 165 m
- Denbora (g.g. b.): 2 ordu


#### Gomendioak:

- Honako noranzko hau gomendatzen da: Elexalde-Ibaeta-Bermokiz-Mendia-Ogoño-Larrasille-Bermokiz-Ibarrangelu.

- Beste abiapuntu posible batzuk: Elantxobe.

- Ogoñoiko gailurra eta talaia eremu arriskugarriak dira, eta beraz kontu handiz ibili behar da bertan.

#### Ibilbidearen perfila:



Munitiz

Erraz egiteko moduko bidezidor biribila Ibarrangelu-erdi-gunearen eta Ogoñoiko talaia-eremuaren artean, Elantxobeko arrantz-portu ikusgarria bisitatzeko aukera eskaintzen diguna.

Kantauri itsasoaren aurrean altxatzen da Ogoño mendigunea, bere jatorriari malenkoniak begiratzen diolarik. Gure kostaldeko bazter ederrenetako bat da. Hartz handi honen babesean, laga hondartza dugu alde batean, eta Elantxobeko portua bestean. Bere garaiarengatik, perpendikularitasunarengatik eta kokapenarengatik, Ogoño lurmuturra benetako talaia da, Elantxobeko arrantzaleek arrantza zaintzeko eta eguraldia iragartzeko betidanik erabili dutena.

Bidezidor horretan aurrera eginez iritsiko gara hartz enblematiko honen talaia. San Andres elizaren ondotik abiatzen da, eta Euskal Artearen Kapera Sixtinoa esaten zaio eliza horri, barruan gorde duen egurrezko ganga zizelkatu eta polikromatuari esker.

Berehala atzean utziko dugu hirigunea, eta larreen eta zuhaitzi eta baserri txikien artean egingo dugu aurrera, laster batean, Bermokiz auzora iritsiko gara, Elantxobeko goialdean.

Bermokiz eta Mendia auzoen artean Lekeitioren egundoko ikuspegia eskainiko digu bidezidorrak, eta ondoren baso-eremuan barneratuko gara, Ogoñoako bidean.

Ogoñoiko tontorraren eta talaia-eremuaren inguruetan landare-errezel barnerazina aurkituko dugu: arteak, gurbitzak, endalarrak etab. Goialdeetan, ordea, ikuspegia garbiagoa da berriro, eta Urdaibaiko panoramika eder-ederrak irango ditugu ikusgai.

Ongi merezitako atsedenaldiaren ostean Ibarrangelura edo Elantxobera jaitsiko gara bueltan, paisaiak gozatzen jarraitzeko.



### Informazioa

Turismo bulegoak:

- Gernika-Lumo..... 94 625 58 92
  - Bermeo ..... 94 617 91 54
  - Mundaka ..... 94 617 72 01
- Garraio publikoa:
- Bizkaibus ..... 946 125 555
  - Euskotren ..... 902 54 32 10



Urdaibaiko Biosfera  
Erreserbako Patronatua  
Madariaga dorretxea  
94 403 23 60

## elantxobe

Zatuz gure kostaldeko portugune ikusgarrienetako bat ikustera. Nabarmentzekoak dira hirigunearen bertikaltasuna, kale estuak, arrantzale-etxeak eta portua, orain bi mende eraiki zutena Ogoñoiko labarraren oinetan, haize bortitzetatik babestutako eremu batean.



## ogonoiko talaia

Ogoñoiko haitza orain milaka urte sortu zen, sakonera txiki-itsaso baten azpian. Geroago azaleratu zen Kantauriko benetako talaia bihurtzeraino, Elantxobeko arrantzaleek ongi baino hobeto aprobetxatu zutena. Bertako koba eta labarretan interes handiko hegaztien egiten dituzte habiak.



Talaiaetik bistak



Bermokizko bidea

### MIDE

Bideek eskatzen duten maila teknikoa eta fisikoa neurtzen duen metodoa da, 1etik 5era, txikienetik handienara doazen zailtasun balioekin.

- 1 Ingurunea
- 2 Desplazamendua
- 2 Ibilbidea
- 2 Esfortzua

#### Gogoratu

- Ondo prestatu txangoa
- Utzi bakelan inguruko animaliak
- Gogoratu prismatikoak hartzea
- Ez hartu lorerik
- Utzi atatak aurkitu dituzun moduan
- Ez bota zaborrik



Homologatutako ibilbideak. Sinbologia.

PR®

- Zidorraren jarraipena
- Norabide aldaketa
- Okerreko norabidea

Mendiko ibilbide laburra (PR)

Mendiko ibilbide luzea (GR)

Interesguneetara desbiderapenak



### artadi kantauriarra

Landare-errezel mardul berde batek estaltzen du Ogoñoeko lurmuturraren goialdea. Baso trinko horretan artea da espezie nagusia, eta artearekin batera beste hainbat espezie ageri dira, guztiak ere substratu pobre eta zoru malkartsu baten gainean bizitzeko gauza. Artadi kantauriarra da.

### Ikurrak

- |  |                     |  |                  |
|--|---------------------|--|------------------|
|  | Abiapuntua          |  | Iturria          |
|  | Aparkalekua         |  | Karobia          |
|  | Eliza               |  | Atsedengunea     |
|  | Gailurra            |  | Garraio publikoa |
|  | Ikuspegi panoramiko |  | Ostatua          |
|  | Natura 2000 sarea   |  | Taberna-jatetxea |
|  | Interes naturala    |  | Hondartza        |